

Museoa eta agertokia uztartuko ditu Artiumek

Carmen San Estebanek artearen hainbat diziplinaren arteko elkarrizketa irudikatuko du museoan bertan

Jon Rejado.
Gasteiz

Arte plastikoaren eta antzezpenaren arteko elkarrizketa irudikatuko du Carmen San Esteban antzezleak Artiumen, horko erakusketetako bat oinarritzat hartuta. Denbora mendekatzaila Artium Arte Garaikideko Zentro-Museoko bildumaren bederatzigarren erakusketa da, eta horko arte lan batzuk aukeratuta, Denbora zeharkatuz antzezlanak prestatu du San Estebanek, eta artelanak dauden tokian bertan egingo du. "Ikusletik gertu egoteko ahalegina da, eta oso gertutik sinesgarria izateko.

Erakusketa dagoen aretotik mugituko da San Esteban aukeratu dituen lanen aurrean. Erakusketaren ardatza denbora bada ere, pertsonengan duen eragina eta etortzeke dagoen denbora emakumearen ikuspuntutik islatuko du gai hori antzezleak. Emakume batek bizi dituen etapak erakusten ditu, gertatzen diren aldaketak...

Datozen bi asteburuetan hamar antzezpen egingo ditu. Martxoaren 6an eta 13an, hiruna emanaldi egingo ditu, eta martxoaren 7an eta 14an, bina emanaldi. 50 lagunek osatutako multzoek baino ezin izango dute ikusi lan hori emanaldi bakoitzean. "Ikuslea aparteko voyeur bat izango da, eta nahiz eta gertutasuna egon, ikusleak ez du bere burua erasota sentituko.

Artea artearen gainean

Ez da lehen aldiz San Estebanek modu horretako egitasmo bat egiten duela Artiumen, eta Daniel Castillejo zentro museoko zuzendaria pozik dago lortzen denarekin: "Nahi genuena da, zehatz-mehatz; funtsezkoa iruditzen zait egitasmo guztiek elkarrekin harremana izatea. Horrelako egitasmoen bidez lanak aberatsagoak izatea lortzen dela nabarmendu du.

Zentro museo bati dagokion lana dela gogorarazi du Lorena Lopez de Lacalle Arabako Kultura diputatuak: "Poztekoa da Artiumek ildo guztiak jorratzen dituela ikustea eta egungo errealitatera irekita dagoela ikustea.